

LANBIDE-N ETA SEPE-N IZENA EMAN

Kontratua
Indemnizazioa

LANBIDE-n eta SEPE-n izena eman

LANBIDE-n eta SEPE-n izen ematea kontratua bukatu eta biharamunean bertan egin daiteke eta ondorengo 15 egunetan (epe hau baino beranduago eginez gero, eskubideak sortzen direnetik eskaera egunera arteko denbora galdua izanen da). Izen ematea osatzeko honakoak beharko dituzu:

1/ LANBIDE-n izena eman eta behar diren agiriak eraman*:

- Lehen aldiz izena ematen baduzu, nortasun agiri bat, gizarte segurantzako zenbakia (jadanik Espainian lan egin baduzu), titulu edo lan egiaztagirien kopiak, eta zure ohiko bizilekuaren egiaztagiria.
- Jadantik izena eman baduzu langabezia zerbitzuan, orduan izen ematea sarean egin dezakezu.

Behin izena eman eta langabetu txartela jasoko duzu: DARDE- Documento de Alta y Renovación de la Demanda de Empleo.

2/ Tokiko SEPE-ra joan (hitzordua on-line eska dezakezu) eta honako agiriak eraman:

- Langabezia-sariaren formularioa beterik***
- Langabetu txartela -DARDE Nafarroako Enplegu zerbitzuak ematen duena- eta indarrean den nortasun agiri bat
- Zure enplegatzaile ohiaren ziurtagiria, kanporatze gutunaren kopia kontratu mugatuarena,
- DP U1 formularioa
- Saria jasotzeko bankuko datuak
- Familia egoera egiaztatzen lagun dezakeen dokumentu oro (familia liburuxka, dibortzio agiria...)

*http://apps.lanbide.euskadi.net/apps/GE_OFICINAS?LG=E&ML=OFIMEN1&ML=OFIMEN1&MS=Rf&TPOF=1

** <https://sede.sepe.gob.es/citaprevia/solicitudCitaPrevio.do>

***https://www.sepe.es/contenidos/personas/prestaciones/pdf/impreso_solicitud_contrIBUTIVA.pdf

LANBIDE-N ETA SEPE-N IZENA EMAN

Zure egoera LANBIDE-n eguneratu behar duzu (DARDE-ak finkatutako epeetan) telefonoz edo Internetez: <http://www.lanbide.euskadi.eus/orokorra/-/informazioa/nola-berritu-zure-eskaera/>

Kontratua

Indemnizazioa / langabezia-saria:

Indemnizazioa

SEPE-k kalkulatzeko du langabezia-sariaren zenbatekoa. Horretarako azken 180 egunetako kotizazioak kontutan hartzen ditu. honelakoa izango da zure langabezia saria:

- Lehen 180 egunetan erregulazio oinarriaren %70
- 181. egunetik aurrera erregulazio oinarriaren %50

Haur kopuruaren eta eragin anitzeko errentaren adierazle publikoaren* (IPREM) arabera, badago gutxiengo eta gehieneko zenbateko bat

Adibidez, haurrik ez duen baten kasuan

- Ezin da hileko 501.98€ baino gutxiago izan
- Eta ez ditzake hileko 1098.09€ gainditu

Langabezia-sariaren simulatzailea:

<https://sede.sepe.gob.es/dgsimulador/introSimulador.do>

Langabezia indemnizazioak eskuratzeko azken 6 urteetan 360 egunez lan egin eta kotizatu duzula egiaztatu beharko duzu. Langabezia eskubideak emateko jadanik erabili ez diren kotizazio garaiak hartuko dira kontuan.

*https://www.sepe.es/contenidos/personas/prestaciones/Cuantias_anuales.html

LANBIDE-N ETA SEPE-N IZENA EMAN

Langabezia-sariaren iraupena azken sei urteetan kotizatu
duzun garaien arabera izanen da:

	Kotizazio iraupena egunetan	// Prestazioaren iraupena
Kontratua	360tik 539ra	120
	540tik 719ra	180
Indemnizazioa	720tik 899ra	240
	900tik 1079ra	300
	1080tik 1259ra	360
	1260tik 1439ra	420
	1440tik 1619ra	480
	1620tik 1799ra	540
	1800etik 1979ra	600
	1980tik 2159ra	660
	2160tik aurrera	720

Saria hilero ordainduko da, hilabetea pasata.

2018ko abuztua